

Urdiaineko arotza

Emmanuel Iñarra-k kontatua

Burundako ibarran ardura hartza bat hango herrietarat joaiten zen eta jendeak beldurarazten zituen. Nehork ez zuen nahi hari buru egin.

Halere arotzak, Urdiaineko gizon ttipiena eta ahulena, hitz eman zuen hartzaz libratuko zituela. Egun hartan hartza Urdiainerat heldu da eta biztanle guziak heien etxeetan gordetzen dira. Arotzak bere lan burrunbatsua bere aroztegian segitzen du eta hartzak han topatzen du. Arotza hartzari : « Kasu emak ! Jendeak hitaz beldur dira, baina hobe duk hemendik ez berriz etortzea ».

Hartza: “Zer! Ni hitaz beldur! So egizak zoin ttipia hizan. Ez naiz hitaz beldur izaten ahal! Halere hire kuraia maite dut eta barkatzen iut”.

Arotza : « Hire barkamendua atxiki hizak ! Nahi baduk orain norgehiagoka aritzen ahal gituk! ”.

Hartzak, bere hortzak erakutsiz, bere desafioa onartzen du.

Arotzak bere trukesak aroztegiako suan berotzeko uzten ditu eta hartzari erraten dako: “Goiata ezak, berotu behar nuk”.

Trukesak xuri-xuriak direlarik arotzak hartza deitzen du eta trukesekin bere sudur ziloak hartzen dazko.

- Ai ai ai ! Ui ui ui ! Utz nezak, otoi ! Aski berotu hiz ! Amor emaiten diat !

Libratu eta gero hartza bere lagunenganat doa eta gertatu zakon historia kondatzen die.

- Ez nuen pentsatzen hain azkarra zirela ! Eta ttipiena eta ahulenak bere erhiekin nere sudurra urratu baldin banau ez nuke nahi azkarrenaren bidea kurutzatu !

Geroztik hartzak ez dituzte gehiago Burundako biztanleak nardatzen.